

Donostia, 2023ko uztailaren 28a

95/23 PRENTSA OHARRA

DBIZI BESTE AUZO BATZUETARA IRITSI DA, 21 GELTOKI BERRIEKIN ETA 257 BIZIKLETA ELEKTRIKO GEHIAGOREKIN

Dbizi Donostiako bizikleta alokairu sistemak **beste 21 geltoki gehiago ditu** dagoeneko, eta **beste auzo batzuetara iritsi da**, esaterako, Altzara, Bidebietara edo Añorgara. Datozen hilabeteetan, gainera, beste bi geltoki gehituko dira, izan ere, obra batzuk direla-eta bi geltoki horiek ezin dira orain jarri. Gaur aurkeztu da, ekitaldi batean, sistema **beste 257 bizikleta elektriko gehiagorekin** zabaldua, eta aurkezpen ekitaldian parte hartu dute Eneko Goia Donostiako alkateak eta Igor Gonzalez Dbuseko zuzendari gerenteak.



Sistema horrela zabaldua, Dbizi orain arte zerbitzurik ez zuten Donostiako gunetara iritsi da; izan ere, guztira **70 geltoki** ditu, denak mistoak, eta zerbitzuak **317 bizikleta elektriko eta 317 bizikleta mekaniko** ditu katean. Horrela, hirian **estaldura handiagoa** eta bizikleta elektriko gehiago eskaintzen ditu, erabiltzaileen eskari handiari erantzuteko.

Dbizi sistema donostiarren egunerokoaren parte dira dagoeneko. Sistema auzoetara zabaltzeak eskatzen du, halaber, sarea ere Erdialdea-Amara-Antigua-Gros-Egia aldeetan zabaltzea, auzoen artean gertatzen diren joan-etorriei erantzun ahal izateko eta erdialdetik gertuen dauden eremuetako geltokietan ainguraleku libreak egon daitezen

Horregatik, eremu horietan geltoki berriak instalatzeaz gain, lehendik dauden geltoki batzuetan ainguraleku gehiago jarriko dira. Zabaltze horrek, gainera, **mugikortasun jasangarria** sustatzen laguntzen du gure hirian, garraio publikoaren **intermodalitatea** indartuz.

Mugarri berri hau ezagutarazteko, komunikazio kanpaina bat jarri da abian, sistemaren zabaltze honen hiru ardatz nagusien inguruan: auzo gehiago, geltoki gehiago eta bizikleta gehiago, hori guztia “Dbizi gehiago bizi” lelopean.

Dbiziren geltoki berrien kokalekua

EKIALDEA

- Bidebieta (2)

- Geltoki 1 Julio Urkixo 44an.
- Geltoki 1 Nornahi plazatxoan (Bidebietako bidegorriaren lanak amaitu ondoren)

- Altza (5)

- Geltoki 1 Harrobieta plazatxoan
- Geltoki 1 San Martzial plazan, Altzako goialdean (alde zaharra)
- Geltoki 1 Altzako kiroldegian
- Geltoki 1 Buenavistan (biribilgunea)
- Geltoki 1 Larratxo pasealekua 24an

- Intxaurrondo (1)

- Geltoki 1 Txaparrene pasealekua 26an (Zubiaurre)

MENDEBALDEA

- Antigua- Ibaeta (5)

- Geltoki 1 Satrustegi hiribidea 1ean (Matia kaleko sarreraren ondoan)
- Geltoki 1 Erregezaintza 28an
- Geltoki 1 Pio Baroja 20an
- Geltoki 1 Sert plazan
- Geltoki 1 Berio 42an (goialdea)

- Aiete (3)

- Geltoki 1 Bera-Beran



- Geltoki 1 Pagola-Lugaritzen
- Geltoki 1 Txapillo kalean

Añorga (1)

- Geltoki 1 Añorga Txikin (sarrerako biribilgunea)

ERDIALDEA-AMARA-GROS- EGIA

- Erdialdea (2)

- Geltoki 1 Moraza 1ean
- Geltoki 1 Nautikoan (Udaletxeko lanak amaitzen direnean).
- Ainguraleku kopurua handitzea: 12 ainguraleku gehiago lehendik dauden geltokietan

- Amara (1)

- Geltoki 1 Olaeta/Ferreriasen
- Ainguraleku kopurua handitzea: 8 ainguraleku gehiago lehendik dauden geltokietan

- Gros-Egia (3)

- Geltoki 1 Zabaleta 35ean
- Geltoki 1 Ametzagaina 47an (Egiako goialdea)
- Geltoki 1 Zuhazti plazan

Zerbitzuaren zabaltze horren zati bat, zehazki gehituko diren 132 bizikletak, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren (MITMA) Next Generation Funtsen bidez finantzatu dira.

